

INFORMAZIO OHARRA

Euskararekiko gazteen jarrerak eta begiradak

Eusko Ikaskuntzak BBK Kunaren kolaborazioarekin bultzatutako esperientzia pilotu bati esker, Bizkaian bizi diren zortzi nazionalitatetako gazteek iritzia eman dute euskarak bere bizitzetan duen eraginari buruz eta haien integrazioari buruz

Bilbo, 2023ko ekainak 12. Bizkaian bizi diren eta Bilbokoak, Portugaletekoak, Eakoak, Aljeriakoak, Marokokoak, Venezuelakoak, Nikaraguakoak, Senegalekoak, Kazakhstanekoak eta Ekuatore Gineakoak diren 16 eta 24 urte bitarteko hamalau neskek eta mutilek hartu dute parte maiatza eta apirila bitartean Eusko Ikaskuntzak BBK Kunaren laguntzarekin sustatu duen jardueran. Talde horretan batzuk euskaldunak ziren, beste batzuk ez edo euskalduntze-prozesuan daudenak. Pertsona guzti horiek hizkuntzaren aurrean jarrera ezberdinak zituzten: batzuen aldetik ikasteko jakin-mina eta gogoia, eta, beste batzuen aldetik, frustrazioa, eguneroko bizitzan nahi adina erabili ezin dutelako; eta, beste batzuen, baztertze sentsazioa nagusitzen da, eskola-esperientzia txarren ondorioz.

Euskaragaz egizu match izenburuarekin eta Eusko Ikaskuntzaren GizarteLAB gizarte-berrikuntzako metodologia aplikatuz, Bilbon egindako lantegietan euskaraz duten pertzepzioari eta hizkuntzak beren bizi-esparruan duen egoerari buruz libreki hitz egiteko aukera izan dute. Horrela, gaudituz beharko liratekeen estereotipo eta aurreiritzi sozialak nabarmendu dira. Hori nola egin behar den galderari erantzun diote gazteek, testuinguru formalean (hezkuntza sistema, erakundeak, lan merkatua, etab.) eta informalean (gizarte-harremanak, kultura-jarduerak, komunikazio digitala, etab.) aplikatu daitezkeen jarduketara eta ekimenen proposamen zehatzekin.

Esperientzia honetako ondorioen artean, gazteek seguruago eta erosoago sentitzen diren eremuetara hurbiltzeko beharra ikusten da, bai eta gazteen munduarekin bat egingo duten erreferente euskaldunak sortzeko beharra ere; euskarazko kultura sustatzeko beharra; hizkuntzaren irakaskuntzan, komunikazio-funtzioan sakontzeko beharra; eta, azkenik, adierazi da komeni dela euskarak historian zehar izan duen ibilbidea ezagutaraztea, lorpenak eta mugak behar bezala baloratu ahal izateko.

Nolanahi ere, gizarte-berrikuntzako esperientzia pilotu honek erakutsi du, Eusko Ikaskuntzaren iritziz, gazteek euskararekiko duten

begiradari eta jarrerari modu positiboan eragiteko aukera dutela, etorkizunean eginkizun garrantzitsua izango baitute hizkuntzaren erabileran eta iraupenean.

NOTA INFORMATIVA

Actitudes y miradas de la juventud hacia el euskera

Una experiencia piloto impulsada por Eusko Ikaskuntza con la colaboración de BBK Kuna ha permitido conocer la opinión de jóvenes de ocho nacionalidades residentes en Bizkaia sobre lo que supone el euskera en sus vidas y cómo favorecer su integración

Bilbao, 12 de junio de 2023. Un grupo de catorce chicas y chicos de entre 16 y 24 años residentes en Bizkaia y naturales de Bilbao, Portugalete, Ea, Argelia, Marruecos, Venezuela, Nicaragua, Senegal, Kazajistán y Guinea Ecuatorial han sido protagonistas de una actividad que durante los meses de mayo y abril ha impulsado Eusko Ikaskuntza con apoyo de BBK Kuna. Un grupo de personas en que una parte eran euskaldunes, otra no euskaldunes o en proceso de euskaldunización el resto. Todas estas personas, además, con actitudes diversas ante la lengua: desde la curiosidad y ganas de aprender hasta la frustración al no poder utilizarla tanto como desearían en su vida diaria, o, en el extremo opuesto, de rechazo a causa de malas experiencias escolares.

Con el título *Euskaragaz egizu match* y aplicando la metodología de innovación social GizarteLAB de Eusko Ikaskuntza, en los talleres celebrados en Bilbao han tenido la oportunidad de expresarse libremente sobre su percepción del euskera y sobre la situación de la lengua en sus respectivos ámbitos de vida. De este modo, se han puesto de relieve estereotipos y prejuicios sociales que deberían ser superados. A la pregunta de cómo hacerlo, han respondido los y las jóvenes con propuestas concretas de actuación e iniciativas aplicables tanto en contextos formales (sistema educativo, instituciones, mercado laboral, etc.) como informales (relaciones sociales, actividades culturales, comunicación digital, etc.).

Entre las conclusiones de la experiencia, se observa la necesidad de acercar el idioma a los ámbitos donde la juventud se siente más segura y cómoda, así como crear referentes euskaldunes que conecten con el mundo juvenil; fomentar la cultura en euskera; en la enseñanza de la lengua, profundizar en su función comunicativa; por último, se apunta la conveniencia de dar a conocer cuál ha sido el recorrido del euskera a lo largo de la historia a fin de que se valoren debidamente los logros y las limitaciones de la situación actual.

En todo caso, esta experiencia piloto de innovación social ha demostrado, a juicio de Eusko Ikaskuntza, las posibilidades de incidir de manera positiva sobre la mirada y la actitud de la juventud hacia la lengua vasca entre quienes, a futuro, tendrán un papel importante en el uso y la subsistencia del idioma.